



**BERDINTASUNA,
LARRIALDI SOZIALAREN ERDIGUNEAN**

**2. erronka: - Zaintza, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna
erakundeetan**

Ekainak 19
9:30etik 10:30era

Zaintza, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna erakundeetan
Zaintza, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna erakundeetan

Hizlariak:

Amaia Porres, Lagun Artean (etxerik gabeko eta beste bazterkeria-egoera batzuetan dauden pertsonak gizarteratzeko prozesuei laguntzen dien elkarte) erakunde zuzendaria.

M. Dolores Rodríguez, Bahía Bizkaia Gas (Gasa biltzeko, biltegitratzeko eta birgasifikatzeko enpresa) erakunde Sail Juridikoko eta Giza Baliabideetako Buruzagitza.

Nuria Rivada, SATSE, Euskadiko Erizaintzako Sindikatuko (Lanbidearen garapenaren eta Erizaintzako eta Fisioterapiako profesionalen eskubideen alde egunez egun lan egiten duen erakundea)

Zein da gogoeta-testuingurua?

Erakundeok ziurgabetasunez betetako ezohiko uneak ari gara igarotzen; izan ere, etengabe eta abiadura bizian ari zaizkigu egokitzapenak eskatzen. Aldaketa horiek erakunde sozialetako eta enpresetako pertsonentzako lanpostuen kudeaketa arloan ere ari dira gertatzen. Gure nahia da **erakundeetan emakumeen egoeran inpaktu negatiboa izan gabe aurrera egitea.**

Zenbait erakundeek ibilbidea dugu berdintasun arloan. Jarduera-lerro horren baitan, aspalditik, kontziliazio-politikak genituen. Aurreikusi gabeko krisiak, egungoaren moduan, gure erakundeetako pertsonen kudeaketan erronkak jarri dizkigu mahai gainean, erantzun bizkorreko aldaketen eta beharren aurrean. *Zaintzan, kontziliazioan eta erantzunkidetasunean nola izan ditugu kontuan berdintasun-irizpideak? Zer jarduera-marjina izan dugu neurri horiek aplikatzeko? Zenbateraino jabetu gara egiten ziren jarduerak zer nolako genero-inpaktua izan zezaketen? Horrekin guztiarekin zer ikas dezakegu?*



Topaketa honekin, **ezarri ahal izan duguna eta berdintasunaren alde egin dena, edo alderantziz, arlo horretan atzerapausoa izan dena, identifikatu eta bistaratu** nahi dugu. Eta horrela, epe laburrean etorriko den “normaltasun berrira” aurreratuko gara, nahi gabeko genero-inpaktua ahal den gehien neutralizatzeko.

Bestalde, erakundeok larrialdian tresna asko eta askotarikoak hedatu ditugu eta agian telelanak egin du ikusgarriago genero-arraila; izan ere, emakumeak dira etxean zaintza arloan erantzukizun gehien dutenak. *Nola berrikus eta hobetu dezakegu arlo hori?*

Konturatu gara izan dugun krisi-egoera honekin egoera zaurgarriak areagotu egin direla.. Beste hainbat arrazoiren artean, hauek izan dezakete eragina: alfabetizazio digital txikiagoa eta sektore jakin batzuetan emakumeen baliabide tekniko gabezia. Era berean, pertsonen arreta eskaintzeko postuetan emakumeen presentzia (gizarte-egoera zailean dauden taldeekin esku-hartzea, publikoari, komertzioari arreta...); bertan, lan-baldintzek oso aldaketa handia jasan dute. Baita larrialdi-egoeretan erabakiak hartzeko garaian presentzia txikiagoa ere. *Egoera hori nola lan dezakegu epe laburrean edo ertainean, betiere, emakumeengan izan dezaketen inpaktua zainduz?*

Gure proposamenarekin eta erakundeen arteko elkarrizketarekin, erakundeek une horietan egindako lan guztia aitortu nahi dugu, eta era berean, gure ekarpena egin nahi dugu **berdintasun arloan pertsonen kudeaketa eta garapena hobetzeko.**

Zein da saioaren helburua?

Erakundeek une hauetan egindako lan guztia ezagutzea eta konfinamenduan erakundeetan kontziliazioaren, zaintzaren eta erantzunkidetasunaren arloan egindako **jarduketari** buruz eta aurreikusten diren **ondorioei** buruz gogoeta egitea

- Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna kudeatzeko giltzarriak eskaintzea “bizitza erdigunean” jartzearen ikuspegitik.
- Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-politiketan erakundeetatik langileen bizitza pertsonalari eta familia-bizitzari emandako erantzunari buruz gogoeta egitea, betiere, berdintasun-ikuspegia ardatz hartuta.
- Epe laburrean eta ertainean kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloan izan daitezkeen ziurgabetasunak eta behar berriak identifikatzea.



- Arlo horretan genero-inpaktuaren jarraipena egin ahal izateko, etorkizunean zaintzeko elementuak identifikatzea.
- Ikaskuntzako eta elkarlanean oinarritutako gogoeta egiteko eremuak. Horietan, ikuspegia partekatuko da eta proposamenak sortuko dira esperientziatik eta partekatutako ezagutzatik abiatuta.

3

Nola sar naiteke?

Bete [galdetegia](#) eta saioa baino egun batzuk lehenago sartu ahal izateko esteka jasoko duzu: